

Zuhaitz tristeen poema

Poema baten idazleak bere sentimenduak eta barne egoera adierz ditzake. Testu poetikoak "bertso lerro" izeneko lerro motzetan idazten dira. Lerro hauetan, azken soinuek errima dezakete, hau da, berdinak edo antzekoak izan daitezke. Poema bateko lerroak edo bertso lerroak estrofetan bilduta etor daitezke.

- > 1. Zer nolako egoeratan sentitzen zara pozik? Eta triste?

- > 2. Zein duzu atseginago, negua ala udaberria? Zergatik?

- > 3. Begiratu hurrengo orrialdeko poemaren marrazkiari, eta erantzun galderei.

- Zein urtarori dagokio marrazkia? Esan zergatik.

- Zer egiten du bertan dagoen pertsonak?

- 4. Irakurri poema arreta handiz. Kontuan hartu bertan azaltzen diren harridura (!) eta galdera markak(?).


Udazkena etorri da, eta bota ditu
lurrera hosto lehorrak!
Zuhaitzak triste daude,
izarrik gabeko gauak jota.

Balkoira irten naiz:
-Ilargia goibel dabil zeruko hodeien
artean
izarren laztanik gabe,
horixka, motel,
lainoen magalean-.

Eta zuhaitzak ferekatu ditut
samurtasunezko begiradaz,
hostorik izan dezaten
hurrengo udaberrian,
hosto berdez jantziak.

Zer ari ote dira amesten
zuhaitz biluziak?
Isil-isilik, belarrira esan diet:
"Ez negarrik egin, etorriko da
udaberria,
jantziko dituzue soineko berriak".


Juan Ramón Jiménez
Verde Verderol
Edelvives (Patxi Ezkiagak egokitua)



- 5. Osatu esaldia, hitz zuzenak erabilita.

Aurreko poemak _____ (hegoak/hostoak) galtzen dituzten
_____ (zuhaitzei/animaliei) zer gertatzen zaien esaten digu,
eta _____ (txoria/poeta) nola sentitzen den.

6. Hiru ate hauetatik, zein dago erdi irekita?



7. Bilatu hiztegia ferekatu hitzaren esanahia, eta aukeratu zein den esanahi berekoa.

☐ Bideratu.

☐ Laztandu.

☐ Iraindu.

☐ Tristetu.

8. Ilargia goibel dagoela dio poetak. Horrek esan nahi du _____ dabilela.

☐ pozik

☐ urduri

☐ triste

☐ zoratuta

9. Udazkenak, zer bota ditu lurrera? _____

10. Hiru hitz hauetatik, zeinek esan nahi du "hosto lehorrak"?

☐ Iratzea.

☐ Orbela.

☐ Goroldioa.

11. Eguneke zer unetan ikusten ditu poetak zuhaitzak? _____

12. Nondik ikusten ditu? _____

13. Zer adierazi nahi da ilargia "motel" dabilela esatean?

☐ Ziztu bizian dabilela zeruan.

☐ Ozta-ozta mugitzen dela, indarrik ez balu bezala.

☐ Ez dagoela zeruan.


- 14. Irakurri poemako bertso lerro hauek, eta inguratu poetak erabiltzen duen zentzumena zuhaitzak "ferekatzeko".



Ukimena



Ikusmena



Usaimena

Eta zuhaitzak ferekatu ditut samurtasunezko begiradaz [...]

- 15. Poetaren ustez, zerekin egiten dute amets zuhaitzek?

- 16. Zer esaten die kontsolatzeko? Aukeratu erantzun zuzena.

- ☐ Hosto lehorrak pozik daudela, paseatzera atera direlako.
- ☐ Udaberrian hosto berriak etorriko direla.
- ☐ Hosto lehorrak ez direla inoiz itzuliko.

- 17. Osatu esaldi hauek.

Guztira, poemak _____ bertso lerro dauzka. Bertso lerro horiek _____ estrofetan elkartuta daude.

- 18. Erreparatu bost bertso lerro hauetako azken hitzei. Gero, lotu erriman dauden biak.

Balkoira irten naiz:

-Ilargia goibel dabil zeruko hodeien artean
izarren laztanik gabe,
horixka, motel,
lainoen magalean-.



- 19. Zertarako idatzi zuen poetak poema hau?

- ☐ Zuhaitzei neguan zer gertatzen zaien esateko.
- ☐ Historik gabeko zuhaitzengatik zer sentitzen duen adierazteko.
- ☐ Hosto lehorrak erratzarekin bildu behar direla azpimarratzeko.